



Usurbilgo Udala

Esp. Zenbakia: BE.08-2021/0013

PAREKIDETASUN ETA ANIZTASUN SAILA

GAIA: Migrazioareko eusko itun sozialaren inguruko diktamena

Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Migrazioarako Euskal Itun Sozialarekin bat egiteko proposamena egin dio Usurbilgo Udalari.

Migrazioarako Euskal Itun Soziala izeneko dokumentua Eusko Jaurlaritzak sustatu du, gaur egungo migrazio-erronkari pluraltasunaren, elkartasunaren eta beharraren ikuspuntutik erantzuteko.

Itun sozialak hiru premisa ditu abiapuntu gisa: premisa politikoa (pluraltasuna); premisa etikoa (elkartasuna) eta premisa pragmatikoa (beharrizana). Eta hortik abiatuta zeharkako aukerak eta konpromiso zehatzak finkatzen ditu.

Horrenbestez, ondokoa adierazten du Usurbilgo Udalbatzak:

1. Usurbilgo Udalak Migrazioaren Euskal Itun Sozialarekin bat egiten dugu.
2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu politika migratorioak garatzeko erakunde arteko mahaia aktibatzeke.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu itun honetan jasotzen diren asmoak konpromisoetan bilakatu eta erakundeen artean programak adosteko.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu itunak jasotzen duena garatzeko baliabideak ezartzeko

Guzti hau kontutan izanik, Parekidetasun eta Aniztasun batzordeak, 2021ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Josune Urkola, Patxi Perez, Agurtzane Solabarrieta, eta Beñat Larrañagaren aldeko botoekin, aho batez, Udalbatza Plenoari ondoko Irizpenaren onespena proposatu dio:



Usurbilgo Udala

IRIZPENA

LEHENENGOA:

Usurbilgo Udalak Migrazioaren Euskal Itun Sozialarekin bat egitea.

BIGARRENA:

Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari diktamen honen berri ematea.

Usurbilen, 2021eko azaroaren 22an

BATZORDEKO IDAZKARIA